

## Euskal AEn, 2015ean goi teknologia sektoreak balio erantsiaren %9,7 ekarri, aurreko urtean baino bi hamarren gehiago

**Sektore honetan IKTak erabili eta I+G+b-ra baliabide asko bideratzen dira, estatuko batez bestekoaren gaineratik**

Goi eta goi-ertain sektorean oinarri teknologiko sendodun eta ezagutza-berrikuntza azkardun jarduerak ditugu; Euskal AEn 2015ean 4.787 enpresatan 85.124 langile ari ziren, guztien %8,4, Eustaten datuen arabera. Sektore honen negozio-zifra, 17.707,7 milioi; balio erantsia 5.992,9 milioi, osoaren %9,7.

Aurreko ekitaldiaren aurrean okupatuak 705 gehiago, baina sektorearen pisua ekonomia osoan bi hamarren gutxiago. Balio erantsian, sektorearen pisua ekonomia osoan bi hamarren gehiago; izan ere 2015ean ekonomiaren batez bestekoaren gaineratik hazi da. 42 enpresa gehiago; batez besteko tamaina 17,8 pertsona 2015ean, 2014an bezalaxe. Negozio zifra %4,9 hazi da 2015ean aurreko urtearen aldean.

### 1. taula: Goi-teknologia sektorearen magnitude nagusiak, lurralde eta jarduera sektoreen arabera, 2015

	Enpresa kopurua	Landun kopurua	Negozio kopurua (1)	Balio erantsia (1)
<b>Goi-teknologiaren sektorea</b>	<b>4.787</b>	<b>85.124</b>	<b>17.707,7</b>	<b>5.992,9</b>
<b>Lurralde Historikoa</b>	0	0	0,0	0,0
Araba/Álava	668	14.616	4.830,4	1.092,0
Bizkaia	2.488	33.998	5.993,4	2.425,2
Gipuzkoa	1.724	36.510	6.883,9	2.475,6
<b>Jarduera-adarra</b>	0	0	0,0	0,0
<b>Goi-industria eta Goi-ertain teknologia</b>	<b>1.641</b>	<b>59.292</b>	<b>14.829,3</b>	<b>4.153,1</b>
Goi-teknologia	157	9.302	1.940,9	644,5
Goi-ertain teknologia	1.484	49.990	12.888,4	3.508,7
<b>Goi-teknologia edo puntako zerbitzuak</b>	<b>3.104</b>	<b>25.832</b>	<b>2.878,4</b>	<b>1.839,8</b>

(1) Milioika eurotan


**Iturria: Eustat. Goi teknologiako adierazleen panela**

Enpresen %14,4k I+G egiten du; sektoreen guztirakoan, %1,0k. Gainera, sektoreak – enpresa guztien %3,1- I+G egiten dutenen %43,4 biltzen ditu, eta enpresa-sektorearen I+G barne-gastuaren %71,5 -679,7 milioi- egikaritzen ditu; 2014koaren aldean, haren pisua gastu osoan ehuneko bi puntuz baino gehiagoz gehitu da.

Sektorean 2015ean 8.990 langile aritu ziren I+Gn, dedikazio osoko baliokidetzan (enpresa sektore guztien %68,7; sektore guztien %49,4); 2.747 langile, emakumezkoak. Dedikazio osoko baliokidetzan 5.695 ikertzaile aritu ziren; haien arteko 1.767, emakumeak.

Berrikuntzan, I+Gn bezala, alde esanguratsuak daude sektoreen guztirakoaren eta Goi-teknologiaren artean. 2015ean, goi-teknologiako establezimenduen %33,7, berritzaile; sektoreen guztirakoan %11,9. Enpresaren tamaina kontuan, 10 langile eta gehiagokoetan, lehen kasuan %58,0, sektore guztietan %28,2.

**1. grafikoa: I+G+b goi-teknologiako enpresetan eta sektore guztietako enpresetan. 2015. (%)**



**Iturria: Eustat. Goi teknologiako adierazleen panela**

Berrikuntzan goi-teknologiako establezimenduek 1.234,2 milioi gastatu zituzten, guztien gastuaren %50,5. Gastu horretatik, 1.126 milioi 10 langile eta gehiagoko establezimenduek eginak, tamaina horretako enpresen gastu guztiaren %54,1.

Begiratzen badugu zer den berrikuntzako eta I+G+b gastua negozio zifraren gainean (barne berrikuntzako eta barne I+G intentsitate-ratioak), begi bistakoa da, baita ere, Goi-teknologiaren sektorean baliabide gehiago joan zirela I+G+b-ra gainerako sektoreetan baino. Berrikuntzaren intentsitatea 6,03 da sektorean eta 1,54 guztirakoan. Barne I+Gn ratioa 3,73 da Goi-teknologian eta guztirakoan 0,80.

IKT teknologien erabilera oso zabaldua dago sektore honetako enpresen artean, baina merkataritza elektronikoaren erabilerak, gainerako sektoreetakoaren gainetik badago ere, ezarpen handirik gabe dirau, batez ere salmenten aldetik. Erosketak egindako goi-teknologiako establezimenduak %46,9 eta salmentak %12,3; sektoreen guztirakoan %23,9 eta %6,5. Merkataritza elektronikoa dugu goi teknologiako establezimenduen %48,1ean eta sektore guztien %26,4tan.

**2. taula: Goi-teknologia sektoreko berrikuntzako eta barne I+G intentsitatea, lurralde-arlo, jarduera sektore eta enplegu-geruzen arabera (%). 2015**


	Guztira		10 langile eta gehiago	
	Berrikuntza intentsitatea (1)	Barruko I+Garen garrantzia (2)	Berrikuntza intentsitatea (1)	Barruko I+Garen garrantzia (2)
<b>Sektore guztira</b>	<b>1,54</b>	<b>0,80</b>	<b>2,03</b>	<b>1,16</b>
<b>Goi-teknologiaren sektorea</b>	<b>6,03</b>	<b>3,73</b>	<b>5,89</b>	<b>3,65</b>
<b>Lurralde Historikoa</b>	0,00	0,00	0,00	0,00
Araba/Álava	4,81	1,52	4,60	1,47
Bizkaia	6,29	3,94	6,15	3,91
Gipuzkoa	6,65	5,15	6,61	5,10
<b>Jarduera-adarra</b>	0,00	0,00	0,00	0,00
<b>Goi-industria eta Goi-ertain teknologia</b>	<b>3,80</b>	<b>1,79</b>	<b>3,89</b>	<b>1,86</b>
Goi-teknologia	5,01	2,78	5,05	2,81
Goi-ertain teknologia	3,54	1,57	3,63	1,64
<b>Goi-teknologia edo puntako zerbitzuak</b>	<b>13,94</b>	<b>10,63</b>	<b>14,08</b>	<b>10,99</b>

(1) Berrikuntzaren garrantzia: (berrikuntzako gastuak/negozioen kopurua)\*100

(2) Barruko I+Garen garrantzia: (barruko I+G gastuak/negozioen kopurua)\*100

**Iturria: Eustat. Goi teknologiako adierazleen panela**

**2. grafikoa: IKT erabilpena. 2015. (%)**



**Iturria: Eustat. Goi teknologiako adierazleen panela**

Goi-teknologia sektoreak ondasunen kanpo merkataritzan duen eragina ez da oso esanguratsua. Esportazioak 885,2 milioi (%4,0) guztirakoa 21.867,8; inportazioak 686,5 milioi (%4,1), guztirakoa 16.835,6.

Esportazioetan nabarmentzen dira: Makineria eta ekipo mekanikoa (%49,7), Material elektronikoa eta ekipoak (%15,2), Eraikuntza aeronautiko eta espaziala (%11,3). Inportazioetan: Material elektronikoa eta ekipoak (%31,4), Eraikuntza aeronautiko eta espaziala (%15,6), Lanabes zientifikoak (%15,3), Makineria eta ekipo mekanikoa (%14,6).

Azkenik, 10 enplegatu eta gehiagoko enpresen goi-teknologiako sektorearen Euskal AEn eta estatuaren osotasunean, bada alderik adierazleetan. Enpresa berritzaileak: %58,0 Euskal AEn, %41,4 estatuan. Intentsitatea berrikuntzan: %5,89, %4,45. Intentsitatea I+Gn: %3,65, %3,38. Internet eta weba dituzten enpresak: %93,4 Euskal AEn; %90,7 estatuan.

### **Ohar metodologikoa:**

Goi-teknologiako sektoreak: haien konplexutasunagatik, ikerkuntza-ahalegin etengabea eta oinarri teknologiko sendoa behar dituztenak dira. [Web Eustat](#). [Metodologia fitxa: goi-teknologiako adierazleen panela](#) estekan daude sektoreko jarduerak, 2009 EJSN-ren arabera.

---

#### **Informazio gehiago.**

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*  
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz  
Prensa zerbitzua: [servicioprensa@eustat.es](mailto:servicioprensa@eustat.es) Tlf: 945 01 75 62